



Lazioko ultra faxistek hainbat realzaleri eraso egin diete

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 23/01/2025

Realeko lau zale ospitaleratu dituzte, horietako hiru arma zuriek eragindako zauriekin

Realak eta Laziok Europa Ligako partida dute gaur baino atzo gauean, Lazioko 80 faxistek, Realeko hainbat zaleri eraso egin zieten Erroman. Realeko jarraitzaileak Finnegan pubean sartu ziren eta han eraso egin zieten, geroago Kanean jarraitu zuten istiluek, Koliseotik gertu. Istiluetan realeko zale bat askoren artean jipoitu zuten, buruan ostiko eginez. Irudietan ikus daitekeenez, lurrian dagoen pertsona bat makil handi batekin kolpatzen dute behin eta berriro. Italiako Poliziak hainbat gailu atzeman die zale italiarrei, hala nola, labanak, makilak eta arma gisa erabil daitezkeen bestelako tresnak.

Osozara Realeko bederatzi zale zauritu zituzten, horietako hiru arma zuriekin: zaleetako bi Umberto I eta San Giovanni ospitaleetara eramane zituzten, eta beste bi zale Fatebenefratelli ospitaleran, Santo Spiridon. Esan beharra dago, Lazioko ultrak inoiz ez dutela ezkutatu beren ideologia faxista.

<https://eh.lahaine.org/lazioko-ultra-faxistek-hainbat-realzaleri>